

10. LEV S. VIGOTSKIREN GARAPENAREN PSIKOLOGIA

Gai honetan, Vigotskiren lanaren oinarritzko eduki teorikoak jorratuko dira. Batetik, haren obran testuinguru soziopolitikoak izan zuen eragina nabarmenduko da. Bestetik, garapenaren psikologian garrantzitsuak izan diren bi kontzeptu zehaztuko dira, *Formazio bikoitzaren legea* eta *Berehalako garapen-esparrua*, hain zuzen ere. Horren ostean, Vigotskiren eta Piageten ekarpenen arteko konparazioa egingo da, garai hartan Piaget maila goreneko egilea baitzen eta Vigotskiren lana ulertzeko lagungarria izan baitaiteke. Ondoren, gaian sakontzeko bi jarduera praktikoko proposatuko dira. Horrez gain, gaia menderatzeko oinarritzko kontzeptuak zehaztuko dira. Gainera, edukiak behar bezala eskuratzeko, autoebaluazioa planteatuko da. Azkenik, zenbait irakurgai osagarri emango dira.

10.1. Biografia eta testuinguru soziopolitikoak

Vigotski (1896-1934) sobietarra zen eta 38 urte zituela hil zen tuberkulosiak jota. Haren lanak errusieraz zeudenez, ez ziren mendebaldera iritsi 1960an itzuli ziren arte. Vigotskik giza garapena testuinguru sozialaren barruan kokatzen zuen eta *testuinguruzko ikuspegia* planteatu zuen lehen aldiz. Vigotskiren lanaren oinarritzko edukiak ulertzeko, ezinbestekoa da haren formazio akademikoari buruz eta haren testuinguru historikopolitikoari buruz zenbait argibide ematea. Vigotski maila ekonomiko ertaineko eta kultura maila handiko familia judutar batean jaio zen 1896an. Haurtzaroa eta nerabezaroa Bielorrusiako hiri txiki batean, Gomelen, igaro zituen. Formazio akademikoari dagokionez, esan beharra dago Vigotskik psikologian prestakuntza berezirik ez zuela jaso. Hasiera batean, batxilergoan, oso ikasle ona izan zen eta literatura eta artea, besteak beste, izan zituen gustukoak. Geroago, eta judutarra izateak eragin zizkion tratu diskriminatzaileak eta oztopoak gainditu ondoren, zuzenbidea ikasten aritu zen lau urtez Moskuko Unibertsitatean. Horrez gain, filosofiaz, psikologiaz, historiaz, antzerkiaz, literaturaz, eta irakaskuntzaz ezagutza zabalak izan zituen. Izaera liberaleko zentro batean - Shanyavskyko Herri Unibertsitatean- egin ahal izan zituen ikasketa horiek. Unibertsitate horretan Moskun garai haietan aurki zitezkeen irakaslerik irekienek eta onenek irakasten zutenek, abangoardiako korronteak ezagutzeko aukera izan zuen.

1917an, Iraultza Boltxebikearen garaipena gertatu zen eta Vigotski bere hirira itzuli zen. Orduan, egoera berria oinarritzat hartuz, hiriko egoera aldatzen saiatzen zirenekin

elkartu zen. Antzerki talde bat sustatu zuen eta arteari buruzko aldizkari bat zuzendu zuen. Horrekin batera, hiriko irakasle-eskolan psikologia irakasten hasi zen, eta horrek zientziarekiko interes handia piztu zion. Han, Psikologia Laborategia sortu zuen, eta, han bururatutako ikerketetan oinarrituz eta gauzatu zituen hitzaldiak bilduz, 1926an *Psikologia Pedagogikoa* liburua argitaratu zuen.

Lehen aipaturiko prestakuntza akademikoari, poliglota zela gehitu behar zaio, errusiera, alemanera, latinera eta greziera ikasi zituen eta hebreeraz, frantsesez eta ingelesez irakurtzeko gai zen. Hori dena kontuan hartuta, ez da harritzekoa semiotikarekiko sortu zitzaion bokazioa. Horren ondorioz, eta prozesu psikologiko gorenaren sorburua aztertzeko, psikologiara sakonki jo zuen.

Vigotskiren lanek oinarri filosofiko eta psikologiko garrantzitsuak dituzte. Freud, Spinoza, Marx, Engels eta abarren lanak irakurri zituen. Gizabanakoaren eta izadiaren arteko *dialektika* eta *tresna* kontzeptua sortu zituen prozesu psikologiko gorenaren izaera soziala azaltzeko.

Vigotskiren lana laburra izan arren (1934an tuberkulosiak jota oso gazterik hil zelako), trinkoa izan zen. Iraultzaren osteko Sobietar Batasunean kokatu beharra dago. Testuinguru horretan, teoria marxista korrante ideologikoa baino askoz gehiago zen; teoria horrek bitartekoa izan nahi zuen solidarioagoa den eta aberastasuna hobeto banatzen duen orden sozial berria eratzeko. Hori dela medio, Vigotskik eta haren garaiko psikologo sobietarrek uste horri eutsi zioten eta, nolabait, etorkizuneko gizarte berri horrekin bat egingo duen zientzia sortzeko agindua jaso zuten. Planteamendu psikologikoen eta politikoen bat egiten dute. Giro hartan, uste zuten gizakiak, besteekin konpartitzen duen horretatik eta garapenean zehar baneratu duen harremanetik eratorzen baita, solidarioa izan behar duela. Hala, Vigotskik Marxengan eta Engelsengan oinarrituz, ondorioztatu zuen gizabanakoaren garapen mekanismoaren oinarriak gizartean eta kulturaren daudela.

Amaitzeko aipatu behar da Vigotskiren lana XX. mendeko seigarren hamarkada arte ez dela nazioartean sakonki ezagutu estalinismoak ezkutatuta egon zelako.

10.2. Vigotskiren oinarrizko ekarpena

Arestian aipatu bezala, Vigotskik giza garapena testuinguru sozialaren barruan kokatzen du eta testuinguruarekin lotutako ikuspegia planteatu zuen lehen aldiz. Garai hartan konduktistek ezarritako paradigmatari jarraituz, hau da, estimulari eta erantzunari buruzko azalpenetatik abiatuz, *goi-mailako funtzio psikologikoen* bilakaera azaldu zuen,

gizabanakoen funtziorik tipikoenak direlako. Horren ondorioz, psikologiaren azterketa eta lan-eremu nagusiek funtzio horiek izan beharko lituzketela esan zuen.

Kulturak garapenean duen eragina aztertzea zen haren interes nagusia. Haren ustez, talde jakin batek une jakin batean dituen ohiturak eta talde horrek historian zehar izan dituen lorpen zientifikoak, materialak, intelektualak eta artistikoak daude kultuaren barruan. Uste zuen umeak testuinguru soziokulturalaren eta historikoaren eragina duela, eta, horren ondorioz, umeak testuinguru horretan eragin zuzena duela. Haurraren gaitasun psikologikoaren garapena gerta dadin, besteekiko harremanak ezinbesteko motorra dira. Horiek zeinuen bidez gauzatzen dira jendartean, eta hizkuntza izango da pertsonen arteko harremanak bideratzeko sortu eta moldatu den zeinu-sistematik emankorrena.

Arestian aipatu bezala, Vigotskiren teoria soziokulturala prozesu kognitiboetarako buruzkoa da eta, haren esanetan, horretan umeak izaera aktiboa du eta testuinguru sozialaren eta historikoaren eragina jasotzen du. Vigotski psikologia eta teoria marxista uztartzen saiatu zen. Horretarako, materialismo historiko eta dialektikoaren zenbait kontzeptutan oinarritu zen. Haren ikuskeraren jatorrian ere, Marx eta Engelsek gizakuntza-prozesuari buruzko ekarpenak daude baita gizakia animaliangandik bereizten duten zenbait ezaugarri buruzkoak ere (ikus 2. gaia).

Engelsek (1876, 1983) aipatzen zuen zutik egoteko posizioa hartzearen ondorioz eskuaren espezializazioa gauzatu zela, eta hark gizakiak egindako lehen tresnak eraikitzea ekarri zuela. Horrekin batera, eboluzioaren une zehatz batean eta biziraun ahal izateko, gizakiek bere artean tresnak erabiliz kooperatu behar izan zuten. Engelsen arabera, bi gertakizun horiek *mintzaira* agertzearekin, eta kontzientzia eta arrazoitzeko gaitasuna garatzearekin lotuta daude. Hau da, lana, jarduera, tresnak eta elkarlanean egindako naturaren transformazioa gizakiaren garapenean oinarritzko elementuak dira.

Lan horretan bertan, Engelsek gizakien eta animalien arteko oinarritzko ezberdintasuna planteatzen du, eta lehenengoek beren ingurunea lanaren bidez eraldatzeko duten gaitasunean datza. Jarduera hori helburu bat duen prestaturiko zeregina da. Hau da, gizakiak bere helburuak lortzeko menderatzen du natura. Ikuskera hori Marxen eta Engelsen *Manifestu Komunistan* (1848, 2004) aurki daiteke.

Hori dena aintzat hartuta jorratu zuen Vigotskik pentsamenduaren jatorriaren planteamendua. Hori soziala da; hau da, pentsamendua eta kontzientzia beste pertsona batzuekin egindako elkarrekintzatik sortzen dira. Haren ustez, lan kooperatiboaren bidez, natura menderatu eta eraldatzen da eta, zeinuak dira horretarako tresnak, eta horiek barneratzean datza pentsamenduaren sorrera.

Baina, Vigotskik marxismoa eta psikologia uztartzeko egindako saiakera horretan ezin zituen ekonomiatik eratorritako kontzeptuak erabili. Hori dela-eta, kontzeptu propioak asmatu zituen, *Formazio bikoitzaren legea* eta *Berehalako garapen-esparrua* delakoak, esaterako. Ondoren, bi kontzeptu horiek azalduko dira, hurrenez hurren.

10.2.1. Formazio bikoitzaren legea

Lege horren arabera, funtzio psikologiko gorenak, hala nola arreta boluntarioa, mintzaira eta borondatea (zerbait nahita egiteko gaitasuna), bi aldiz agertzen dira: lehenengo, maila sozialean, hau da, pertsonen artean, eta gero, maila indibidualean. Lehenengoari *maila interpsikologikoa* deitu zion eta bigarrenari, berriz, *maila intrapsikologikoa*. Horren ondorioz, azaltzen du prozesu psikologiko gorenak gizakien arteko harreman bezala sortzen direla. Adibidez, mintzamina garatu ahal izateko, harreman horiek ezinbestekoak dira; ez ginateke hitz egiteko gai izango, baldin eta lehenago hitz egin ez baligute; edo, ez genuke autoestimu positiborik izango, baldin eta besteek ez bagintuzte maitatu edo balioetsiko. Horrekin batera, zeinuak erabiltzeak dakartzan buru-eragiketa guztiak lege horren arabera gertatzen dira.

Vigotskik bere teoria edo lege horren baliagarritasuna oroimenean egiaztatu nahi izan zuen, baina argien eta sakonkien azterturiko prozesu gorena mintzaira izan zen. Horren garapenari buruz, honako hau zioen: lehenik, mintzaira aro sozial batetik pasatzen da, eta, horretan, batez ere, komunikatzeko erabiltzen da; geroago, aro egozentriko batetik pasatzen da, eta *barneraturiko mintzaira* bihurtzen da. Kasu horretan, mintzairak jardueraren gidariaren eginkizuna beteko du. Vigotskiren arabera, zeinuak erabiltzea dakarren buru-eragiketa orok aro horiek pasatzen ditu. Testuinguru horretan, nola liteke pertsonak trebetasun horiek eskuratzea? Galdera horri erantzuteko, Vigotskik aipaturiko *barneratze* kontzeptua erabiltzen du. Barneratzeak kanpo-eragiketa baten barne-berrerabilera eragingo du.

Hori azaltzeko, adibide bat erabiltzen du: seinalatze-keinua nola sortzen den, hain zuzen ere. Hasieran, keinu hori umeak zerbait eskuratzeko egiten duen saiakera okerra da, haurra bere eskuekin hartzera iristen ez den objektu bat eskuratzen saiatzen da, baina eskuak, objektura luzaturik, airean zintzilik gelditzen zaizkio eta behatzak mugitu egiten zaizkio zerbaiti heldu nahi izango balio bezala.

Ama edo aita laguntzera etorri eta haurrak bere mugimenduaz zerbait seinalatzen duela ikusten duenean, egoera errotik aldatzen da. Seinalatzea keinu bilakatzen da beste

pertsonentzat. Haurraren hasierako saiakera okerrak erreakzio bat sortarazten du, baina ez nahi zuen objektuarena, beste pertsona batena baizik. Hala, mugimendu horren esanahi primarioa besteek zehaztuta gelditzen da. Geroago, haurrak bere mugimendua egoera objektiboarekin lotuz osotasun bat dela ikusten hasten denean, ekintza hori seinalatze-jardueratzat hartzen hasten da. Une horretan, mugimenduaren funtzioa aldatu egiten da. Objektu bati zuzenduriko mugimendu izatetik, beste lagun bati zuzenduriko mugimendua izatera pasatzen da, harremanak zehazteko bide bat. Hau da, oratze-mugimendua seinalatzeko ekintza bihurtzen da. Hala, funtzio goren oro gizabanakoen arteko harreman gisa sortzen da.

Barneratze-prozesu horrek garapen konplexua dakar, zenbait eraldaketa kualitatibo gauzatzen baitira. Zeinua barneratzeari esker, autorregulaturiko eta planifikaturiko prozesu izatera pasatzen da lehen kanpo-zeinuak erabiltzen zituen jarduera.

Autorregulazioa eta ekintza planifikatzeko gaitasuna gai garrantzitsua da Vigotskiren teorian, eta gaitasun hori zuzenki loturik dago mintzaira barneratzearekin. Vigotski ohartu zen betebeharrak zailtan mintzaira egozentrikoaren areagotze bat gauzatzen zela; hasieran, haurraren ekintzak lagundu eta, geroago, horien aurretik joaten da. Mintzairak ekintza gidatu eta zehaztu egiten du, eta, orduan, mintzairaren funtzio planifikatzaile eta erregulatzailea agertzen da.

10.2.2. Berehalako garapen-esparrua

Berehalako garapen-esparrua delako kontzeptuaren bidez, Vigotskik garapenaren eta hezkuntzaren arteko harremana azalduko du. Berehalako garapen esparrua garapen maila errearen eta garapen maila potentzialaren arteko distantzia da, Vigotskik dioenez.

Giza harremanen bidez helduok haurraren garapen psikologikoan eragin ona izan nahi badugu, haurraren berehalako garapen-esparruan eragin behar dugu. Vigotskik bi garapen maila bereizi zituen: batetik, jada lortutako garapena edo garapen erreala, inoren laguntzarik gabe egiten dituen era guztietako eragiketek adierazten dutena. Bestetik, norbera baino helduago diren beste pertsona batzuen laguntza egokiaren bitartez egiten dituen eragiketek adierazten dutena da garapen maila potentziala.

Aipatu behar da *garapen maila erreala* norberak bere kabuz arazo bat konpontzeko gaitasunak zehazten duela, eta *garapen maila potentziala*, berriz, arazoa konpontzeko gaitasun handiagoa duen heldu edo kide baten laguntzaz arazoa bideratzeak zehazten duela. Beste era batera esanda, inguruneak behar diren baliabideak eskainiz gero, umeak

dakienaren eta egin dezakeenaren artean egin beharreko distantzia da berehalako garapen-esparrua.

Ezagutzaren garapena honela gertatuko da: umeek helduekin dituzten elkarrekintza sozialetan ikasten dute. Gero, ikaste hori zuzendu eta antolatu egin behar dute. Horren ondoren, umeak ikaskuntza hori barneratuko du.

Berehalako garapen-esparruan, umeek betebeharrak jakin batzuetarako gaitasuna erdi garaturik izango dute, baina ez erabat. Irakaskuntza egoki baten bidez gaitasunak guztiz garatzea lortuko dute. Hala, irakasle on batek berehalako garapen-esparrua bilatu eta horretan ikasten lagundu behar dio umeari. Ondoren, poliki-poliki, laguntza kenduz joango da umeak betebeharra inongo laguntzarik gabe egin dezan. Azken prozesu horri *andamiajea* deitu zaio.

Vigotskiren arabera, helduekin edo beste ume batzuekin izandako elkarrekintzak hezkuntzarako baliabide horiek dakartza; horiei esker, umeak beste funtzio psikologiko batzuk barneratzen ditu edo aurrez zeudenak berregituratzen ditu. Hor, oraindik heldutasunik ez duten, baina heldutasun-prozesuan dauden funtzioak kokatzen dira. Horiek, etorkizunean, heldutasuna lortuko dute, baina, oraingoz, "lotan" daude. Garapen-maila errealak atzera begira ezaugarritzen du garapena, eta berehalako garapen-esparrua delakoak geroari begira ezaugarrituko du garapena.

Berehalako garapen-esparru horretan gertatzen den oinarritzko jarduerak, *imitazioa* da. Horri garrantzia handia ematen dio Vigotskik, eta esan daiteke horretan bera eta Piaget bat datozela. Hala eta guztiz ere, Piagetek dio garapen psikologikoa egitura kognitiboaren baretik sortzen dela. Vigotskik, berriz, esaten du elkarrekintza sozialetik eratortzen dela.

Berehalako garapen-esparrua kontzeptuaren oinarrian, ikaskuntza eta garapenaren arteko harremanei buruzko teoria baten oinarria dago. Hain zuzen ere, garapen- eta ikaskuntza-prozesuak ez datozela bat. Garapen-prozesua ikaskuntza prozesuaren ondorio bat izango da, baldin eta ikaskuntza hori pertsonak zuen berehalako garapen-esparruan gertatzen bada. Hau da, ikaskuntzak ez luke garapena sortuko edozein baldintzatan, umeak garapen potentzial maila jakin bat lortzen badu soilik. Vigotskik berak erabiltzen duen metafora erabiliko da hori azaltzeko, "berehalako garapen-esparruan dauden aukerak geroago garapenaren fruituak emango dituzten kimuak dira" (Vigotski, 1935, 1979:134).

10.3. Vigotskiren eta Piageten arteko konparazioa

Vigotskiren eta Piageten lanak konparatzean, agerian geratzen dira desberdintasunak. Hala, Vigotskiren teorian, giza garapena garapen sozialaren mendekoa izango da, eta, beraz,

exogeneoa, semiotikoa eta testuingurukoa da. Piageten garapenari buruzko teorian, berriz, konstruktibismo indibiduala, endogeneoa, operatorioa eta unibertetsala izango da ezaugarri nagusia. Hala ere, bi egileek oinarri epistemologiko eta metodologiko berak erabili zituzten; ikuspegi genetikoa eta dialektikoa erabili zuten; erredukzionismoaren kontrakoak izan ziren, ekintzari, aldaketa kualitatiboei eta prozesuei garrantzi handia ematen zieten-eta.

Beraz, giza garapenean hainbat desberdintasun aipatuko dira. Hala, Vigotskik elkarrekintza soziala hartzen du ardatz, eta, haren ustez, ikaskuntza, ezinbestekoa da garapena gerta dadin; hau da, “kanpotik barrura” doa. Umeak, lehenengoz, besteekiko harremanak izango ditu eta, barneratu eta gero, umearen prozesu kognitiboen oinarriak sortuko dira. Piageten arabera, berriz, garapena ekintza interakzionistaren ondorioa da. Heldutasun biologikoaren eta umearen esperientziaren arteko elkarrekintzarena, hain zuzen ere. Piagetek, batez ere, pertsonak objektuarekin duen elkarrekintza hartzen du ardatz eta, haren ustez, heziketa garapenari laguntzen dion faktoreetako bat da. Hori labur daiteke esanez “barrutik kanporako” prozesua dela, prozesu kognitiboak “barruan” sortzen baitira, eta, geroago, umeak familiarekiko eta inguruenekekiko dituen harremanak moldatuz joango diren ondorioak izango baititu.

Dena den, bi kasuetan, garapena norabide bakarrekoa da: Vigotskiren ustez, barneratze-prozesuari erantzuten dio eta, Piageten ustez, berriz, kanporatze-prozesuari. Biek uste dute barnekoaren eta kanpoaren lotura etengabe aldatzen ari dela, bi eremu horiek ez dira entitate desberdinak eta estatikoak, garapenean zehar eraikitzen den zerbait baizik. Haien arteko mugak mugikorrek dira eta, ezaugarri dialektikoa garrantzitsua bada ere, ezagutza bi eremu horien arteko elkarrekintzatik eta tentsiotik sortuko da.

Laburbilduz, honako hauek dira Vigotskiren lanaren ardatz nagusiak: batetik, tartekaturiko jarduera; bestetik, mintzaira, eta oro har, tartekaturiko jarduera oro sortzean elkarrekintza sozialak duen eginkizuna; horrez gain, jokabide intentzioduna eta, azkenik, prozesu psikologiko gorenetan baldintza soziokulturalek duten eragina.

10.4. Gaian sakontzeko jarduerak

Gai honetako edukietan sakontzeko ariketa praktiko bat eta lantegi bat proposatzen dira. Ariketa praktikoak bi haurren arteko elkarrekintzari buruzkoa da. Lantegia, berriz, Vigotskiren hainbat ezagutza teoriko lantzeko prestatu da. Ondoren, horiei dagozkien helburuak, baliabideak eta prozedurak zehaztuko dira.

10.4.1 Ariketa praktikoa

Helburua: Vigotskiren goi-mailako funtzio psikologikoen garapena aztertzea.

Baliabideak: batetik, gai honetako eduki guztiak, hau da, 10.1., 10.2., 10.3., 10.5., 10.6. eta 10.7. atalak; bestetik, elkar ezagutzen ez duten 3 edota 4 urteko bi ume; horrez gain, bideokamera bat, gela egoki bat eta jarduerak sustatzeko beharrezko jolasak edota materialak.

Prozedura: Vigotskiren teoria aztertu eta ideiarik garrantzitsuenak deskribatu ondoren, honako pauso hauei jarraituko zaie.

- Hasteko, bi umeak ekintza bera egiten jarriko dira bakoitza gela batean, ordu erdi inguru: puzzle bat egiten, ipuin bat irakurtzen, pilota batekin jolasten, eraikuntza-jolasak egiten eta abar.
- Aldi berean, umeek zer egiten duten grabatuko da (zer egin, esan, edota zeri begiratzen dioten, zer sentimendu adierazten dituzten, zer mugimendu egiten dituzten edo zer estrategia erabiltzen dituzten arazoak konpontzeko edo erabakiak hartzeko eta abar). Horietatik guztietatik, ekintzarik garrantzitsuenak deskribatu behar dira.
- Ondoren, bi haurrak elkarrekin jarriko dira lehenengo pausoko ekintza berak egiteko, 20 minutuz. Oraingoan ere, zer egiten duten deskribatuko da (zer egin, esan, edota zeri begiratzen dioten, zer sentimendu adierazten dituzten, zer mugimendu egiten dituzten edo zer estrategia erabiltzen dituzten arazoak konpontzeko edo erabakiak hartzeko eta abar).
- Horren ostean, lehenengo pausora itzuliko gara. Alegia, bi haurrak bakoitza gela batean jarduera bera egiten grabatuko dira eta berdintasunak eta desberdintasunak identifikatuko dira.
- Egin beharreko pauso guztiak egin ondoren, honako hau aztertu behar da: batetik, lehenengo pausotik (haurrak bakarrik daudenean) bigarren pausora (haurrak elkarrekin daudenean) zer aldaketa izan diren; bestetik, zer portaera berri azaldu diren; horrez gain, beste umearengandik zer portaera ikasi duten; azkenik, egindako praktika Vigotskiren ekarpenarekin erlazionatzea.